

Sineste bat da, \*Jesukristok, berriro lur honetara etorri eta mila urteko erregetza ezarriko duela usten duena. Apokaliptsi-ko 20. kapituluko ikuskarian oinarritzen da, hitzez hitz hartuz.

Kristoren erregealdi lurtar hori etorki-zuneko "urrezko aroa"ren itxaropenarekin lotzen dute, eta behin eta berriro agertu da sineste hori \*kristautasunaren historian, batez ere garai larri eta asalduetan, era batera ala bestera.

Lehen mendeetako kristautasunaren jazarraldian, Erdi Aroan, Erreformaren garaian, XIX. eta XX. mendeetan, hainbat \*sekta berrik suspertu dute atzera milenarismoa: hala nola, adbertistek, \*Jehova-ren testigek, \*mormoiek eta Azken eguneko santuen Elizak.

Munduaren amaiazen eta azken judizioaren aurretik gertatuko litzateke milurtealdi hori, eta zintzok, berpizturik, parte izango lukete Kristoren Erreinu zorioneko horretan. Ik. Azken judizioa.

Joakin Fiore-koak azaldu zuen argien milenarismoa XII. mendean, historiaren teologia osoaren barruan. Hiru arotan zatitu zuen historia: \*Aitarena (Itun Zaharra), Semearena (Itun Berrria); 1260. urtetik aurrera hasteko zen, haren ustez, hirugarren aroa, Izpirituarena: hau da, libertate-erreinua. Ik. Izpiritu Santua; Hirutasun txit santua.

Dena dela, milenarismoa gehienbat kristautasunaren historiari lotuta badago, antzeko sinesteak eta ametsak landu izan ditu \*zoroastrismoak ere. Juduen \*mesianismoak ere milenarismoaren tankera hartu zuen baztutan. Izatez, pertsiarrengandik hartu zuten juduek ideia hori.

Ik. Adbentismoa.

### Mīmānza

Indiako sei filosofi eskola ortodoxo handietako bat da: Purva-mīmānza ere esaten da, \*Veda-ko zati zaharrenetan oinarritzen delako, \*Vedanta edo Uttara-Mīmānza ez bezala.

Veda-ren alderdi liturgikoak esplikatuta nahi ditu batez ere eta errito-sistemaren zentzu sakonena ulertu.

Etika erritualista eskaintzen du eskola horrek; Jainkoaren izana ez zaio axola, Veda berez bait da betikoa eta hutsezina, eta agindu baldingabea eta erabatekoa gizakiaren jokabiderako.

Ik. Hinduismoa; Darxana.

### Minaretea

Sin.: Alminarra

Meskitari itsatsita dagoen dorretxoak bertatik egiten du deia \*muezinak, otoitz-ordua dela adieraziz.

Ik. Meskita; Islamismoa.

### Ministeritzak

Sin.: Eliz zerbitzuak

Eliz elkarteko karguak, ofizialki era-tuak, horietarako izendatuek eta eskudunduek betetzen dituztenak dira Eliz ministeritzak. Oso hierarkikoa da definizio hori, kristau-herriaren premiei erantzuteko behetik sortzen eta eratzen diren kargu eta zerbitzuak kanpoan uzten bait ditu.

Elizaren oinarritzako egiturari loturik doaz eta horren hiru dimentsioei erantzun nahi diete: hau da, Jainkoaren hitza elkar-teari predikatzeari, kristau-elkartearen \*elizkizunak egin eta zuzentzeari eta elkar-tea eratu, eraendu eta zabaltzeari. Ik. Jainkoaren hitzaren adierazpena.

Elizen arteko ezberdintasun handienetakoak, hain zuzen, ministeritzak ulertzeko eta eratzeko moduan agertzen dira, bakoitzaren \*eklesiologiaren arabera.

Eliza Katolikoaren fedearan arabera, Elizaren egitura oinarritzakoarekin batera, Jainkoagandikoa da horren ministeritza-egitura funtsezkoa ere: hau da, \*hierarkia da. Zerbitzua betetzeko eskumena Jainkoagandikoa izatea, eta maila bakoitza goragoko Eliz ministeritzen menpe egotea: biak adierazten ditu hierarkikotasunak.

Apaizgo orokorra —kristau guztiena— eta apaizgo ministeriala bereizten ditu irakabide katolikoak. Ordenako sakramentuaren bidez hartzen du apaizak apaizgo ministeriala. Jainkoaren eta gizakien (fededunen) bitartekaritzaren arabera ulertzen du Eliza Katolikoak apaizgo ministeriala. Ik. Apaiza; Ordenazioa.

Honela daude banaturik Eliza Katolikoan funtsezko eliz ministeritzak; gorena \*apezpikutzak da —eta \*apezpiku-kolegioaren burutza, aita santuaren ministeritza edo aita-santutza—; gero, presbiterotza edo apaizgoa; eta hirugarren, diakonotza. Ik. Aita santua; Presbiteroa; Diakonoa.

Eliza apostolikoaren garaian ministeritza horiek zenbateraino definituta eta finkatuta zeuden, nahikoa eztabaidatua dago Elizen artean. Dena dela, horien elizabarruko zenbait eginkizun, horien irudi soziala eta horien garrantzia bera aski aldatuz joan dira Elizaren historian zehar. Diakonotzak,

## **Ministraria**

esate baterako, Eliza Katolikoan apaizgorako urrats huts bihurturik zegoenak, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, bere autonomia eta garrantzi handiagoa hartu du.

Bestalde, ministeritza horiekin batera, beste hainbat ministeritza-gisako sortuz eta galduz joan da Eliza, historian zehar, garaian garaiko eta lekuan lekuko premien arabera: \*Serorak, \*subdiakonoak, \*akolitoak, atezainak, etab. ministro tradizionalak izan dira, gaur garrantzia eta egitekoa erdigaldu dutenak; irakurletza eta sakristautza ministeritzak oraindik indarrean dira; eta gaur egun nolabaiteko ministeritza berri gisa garrantzi handia hartzen ari dira \*katekistak, misiolari laikoak, etab. Ik. Irakurlea.

Eliza Katolikoan aski hierarkikoturik eta zentraldurik dago \*ministroak aukeratzeko eta izendatzea. Baina gero eta gehiago nabaritzen ari da, ministeritzak eta ministroak, kristau-elkarte bakoitzaren premiei eta interesei lotuago egon daitezen, \*elkartek berak parte hartu beharra, beretzako zenbait ministeritza eratzean eta ministroak hautatzean.

Eliza Ortodoxoak eta Eliza Anglikanoak ere hiru ministeritza horiek --apezpikutzak, presbiterotza eta diakonotza-- dituzte funtsezkotzat. Hala ere, ez dute onartzen aita-santutzak, beste ministeritza guztien gain eskumena duenik. Bestalde, Eliza Ortodoxoan bereziki, \*laikok garrantzizko lekua betetzen dute, \*parrokoak hautatzean, kristau-elkartea eraentzean eta elizako ondasunak ministratzean.

\*Erreforma protestantetik sorturiko Elizentzat ez dago apaizgo ministerialik; eta Eliz ministeritza guztiak kristau guztien apaizgo orokorrean oinarritzen dira. Horregatik ministeritza horiek ez daude aparteko sakramenturi (\*ordenazioari) lotuta, eta bai kristau-elkartearen beraren hautapen eta delegazioari. Bestalde, Eliz ministeritza nagusia Jainkoaren Hitzaren predikaritzak da, eliz \*artzainak betetzen duena. Eliz elkar-teea gidatzeko edota elizkizuna edo jainkozko betekizuna zuzentzeko ministro ezberdinak dituzte Eliza batean ala bestean: presbiteroak, sakristauak, diakonoak eta diakonesak; etab. Ik. Jainkoaren hitzaren adierazpena; Jainkozko betekizuna; Predikua; Artzaingintza.

Paulo Agirrebaltzategi

## **Ministraria**

Ik. Ministroa, 2.

## **Ministroa**

Latinetiko hitza da, eta jatorriz zerbitzaria esan nahi du.

Sin.: Zerbitzaria. Eliza barruko hizkeran maiz erabiltzen duten hitza da, kristau-elkarteko zerbitzu izpiritual berezitarako ofizialki hautaturiko edo izendaturiko adierazteko. Elizaren nahiz Jainkoaren ministro edo zerbitzaria esan ohi da. Ik. Ministeritzak.

2. Sin.: Ministraria. \*Sakramentologian eta \*liturgian orokorki, Jainkoaren edo Elizaren izenean \*sakramentuak emateko, \*predikua egiteko eta, kargua duena.

Horrela, Hitzaren ministroa (ministra-ria) esan ohi da (Jainkoaren hitza zabalteko eta azaltzeko eskua eta kargua duena) edota sakramentuen ministroa (ministraria), etab. Ik. Jainkoaren hitzaren adierazpena.

3. Frantziskotarren artean, Nagusi Jeneralari eta Probintzialari eta orokorki edozein nagusiri, ministro izena ematen diete. Ik. Jenerala; Probintziala.

## **Mirabea**

Gizonezkoari buruz morroia ere erabiltzen da, eta emakumeari buruz, neskamea.

Biblian eta kristau-teologian eta hizkeran eurrez erabiltzen den hitza, jainkotiarren jarrera adierazteko; Jainkoaren eta fededunaren arteko harremana jaunaren eta mirabearen artekoaren gisakotzat hartzen da orduan. Ama Birjinak bere buruari Jaunaren mirabea deitzen dio, S. Lukaren ebanjelioaren arabera. Ik. Jainkotiartasuna.

Testamentu Zaharrean, Deutero-Isaia liburuan, Jahve-ren morroia izenekoa agertzen da irudikatuturik, gero \*Mesiarekin berdinduko dena, eta Ebanjelioan, \*Jesukristorekin.

Jesukristoren mezuak, mirabetzaren eduki-teologiko-etikoa nabarmentzen du: hau da, kristauaren besteetiko funtsezko jarrera eta harremana adierazten du. Horretarako bere burua jartzen du eredutzat Jesusek: "Gizonaren Semea ere ez bait da besteen zerbitzuak hartzera etorri, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen-sari emateko" (Mt 20,28). Edonola-ko aginteren neurria eta zentzua jartzen du hor. Boterearen antidotoa da mirabetza.

Ik. Boterea; Ministroa; Karisma; Jainkoaren mirabea; Jainkoaren zerbitzaria.

## **Mirakulua**

Mirari ere esaten da, hitz hori beraren adiera hertsiz hartuz. Izan ere, mirakulua- ren kontzeptu espezifikoa erlijio-alorrare-